

SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**KARDIOLOGIA ZERBITZUA****HIZLARIA: AMAIA LAMBARRI IZAGUIRRE DK.****MODERATZAILEA: LARRAITZ GAZTAÑAGA ARANZAMENDI DK.****2020KO URTARRILAREN 17AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA))****KASU KLINIKOA**

Aurkeztuko dugun kasuaren protagonista 65 urteko gizona da, erretzaile ohia, diabetikoa, dislipemikoa eta hipotiroidea. 2019ko urtarrilean sakoneko zain tronbosia jasan ostean, maiatzean Basurtuko ospitaleko larrialdi zerbitzura hurbiltzen da zorabio eta ondorengo sinkope eta traumatismo kraneoentzefalikoa izan dituelako. Artatze unean konorte maila eta orientazio egokia ditu, eta azterketa fisikoan honako datuak ikus daitezke: odoleztapen eskasa, takipnea, 90/60mmHg-ko TA, 120 taupada/minutuko BM, eta %85eko saturazioa VMK %50era. Susmo diagnostikoaren arabera, eta egoera hemodinamiko eta testuinguru klinikoa kontutan izanda, eskatu beharko liratekeen froga diagnostikoen eta tratamendu baliabide ezberdinen inguruan arituko gara.